

3. PLANA INSPIRATZEN DUTEN PRINTZIOAK

Ekintza ororen abiapuntua eta muina pertsonak direla kontuan hartuta, eta helburu eta lehentasun nagusia osasuna hobetzea dela ikusita, Euskadiko Osasun Plana 2013-2020 hainbat funtsezko printzipiotan oinarritzen da, eta printzipio horiek eusten diete Planean bertan zehazten eta aurreikusten diren estrategia, ekintza eta politika guztiei.

Printzipio horiek guztiak Antolamendu Sanitarioaren Legetik (8/1997) datoz, eta berau da Plan honek aurrera egiteko erreferentziatzko araudi-esparrua eta bidea. Horri esker, osasunaren sustapena lehenesten da eta euskal osasun-sistema kalitatezkoaren iraunkortasuna bermatzen da.

Horrenbestez, hauek dira Euskadiko Osasun Plana 2013-2020ren azpian dauden printzipioak. Labur azalduko dugu zein garrantzi eta izaera duten printzipio horiek osasunaren arloan, Euskal Autonomia Erkidegoko ekintza instituzional eta soziala gidatuko duen ibilbide-orri honen testuinguruan.

UNIBERTSALTASUNA

- Euskadin bizi diren pertsona guztiek aukera unibertsala izatea, osasuna babesten, prebenitzen eta sustatzen duten kalitatezko osasun-arretako zerbitzuetara sartzeko.

ELKARTASUNA

- Hiritar guztiei kalitatezko osasun-arreta ematea, beren gaitasun ekonomikoa edozein izanda ere.
- Gizartean osasun-jardueraren kontuak emateko sistemak ezartzea.
- Erakundeen eta herritarren arteko erantzukidetasuna, osasun-baldintzatzaileei eta osasunarekin lotutako jokabideei dagokienez, biek dute-eta euren ardura arlo horietan.

EKITATEA

- Sozialki, ekonomikoki, demografikoki edo geografikoki zehaztutako biztanle-taldean artean gaixotasuneko eta osasuneko alde sistematiko eta saihegarririk ez egotea. Osasunean ekitatea lortzeko, pertsona bakoitzak gaitasun bera izan behar du bere osasuna bete-betean garatzeko, bere baldintza sozialak edozein izanda ere (posizio soziala, generoa, bizilekua, lan-mota, diru-sarrerak, ikasketa-maila eta jatorrizko herrialdea).
- Osasun-zerbitzuek maila guztietan emandako sarbide, erabilera eta kalitatean ekitatea sustatzea.
- Osasun-ekitateari eustea, justizia soziala bilatzen duen garapenaren parte gisa.

OSASUN-ZERBITZUEN KALITATEA

- Zerbitzua jasotzera datorren biztanleari adeitsu eta jator kasu egitea.
- Laguntza-mailen arteko koordinazioa.
- Mikro-mailan lankidetzan jarduteko ikuspegia; osasunean, gizartean eta erabaki estrategikoetan erantzukizuna duten erakundeen tokiko sareak. Gizarte-erantzukizun korporatiboa.
- Ikerketa sustatzea, biztanleriaren osasuna hobetzeko eta emandako osasun-zerbitzuak bideratzeko. Garapena eta berrikuntza, profesionalen artean partekatutako eza-gutzaren sustapena.
- Laguntza-prozesuen eraginkortasuna, segurtasun klinikoaren oinarritzko alderdi gisa aintzat hartuz.

HIRITARREN PARTAIDETZA

- Gizarte zibileko erakundearen partaidetza, osasun-agenda zehaztu eta aplikatzeko orduan.
- Auto-laguntzaren eta erantzukizun pertsonalaren sustapena

IRAUNKORTASUNA

- Sektorearen eraginkortasuna hobetzea, laguntzako eta Osasun publikoko eredu integratuen bidez.
- Laguntza-mailen koordinazioa, eta baita gizarte-zerbitzuek beste sektore batzuekin duten koordinazioa ere.